



Lezoko Unibertsitateko Udala

0.-ZERGEN KUDEAKETA ETA BILKETAREN ETA BESTE ZUZENBIDE PUBLIKODUN SARRERA LOKALEN ORDENANTZA OROKORRA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

1. Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 106.2 artikuluan diktatzen denaren arabera, Ordenantza Orokor honek arau arruntak jasotzen ditu, zuzenbide publikodun sarreren kudeaketa eta bilketari buruz diktatu daitezkeen Ordenantza Fiskalen eta Barne Arautegiaren parte osatzaile kontsideratuko direnak.
2. Ordenantza hau diktatzen da Ordenantza Fiskalei amankomunak zaizkien aspektua erregulatzeko, honela hauek errepikatzea ekiditeko eta baita Udalak zehaztu edo garatu beharreko materialak erregulatzeko.

2. artikulua. Aplikatzekoak diren arauen lehentasun-ordena:

- a) Zergen kudeaketa dela eta, aplikatuko dira:
 - a) Ordenantza orokor honetako arauak eta erreferentziako zergaren ordenantza fiskal espezifikoak eta baita zerbitzuetako kudeaketaren udal arautegiak ere
 - b) Uztailaren 5eko 11/1989 Arau Forala, Gipuzkoako Ogasun Lokalak arazten duena.
 - c) Urtarrilaren 31ko 1/1985 Arau Forala, Zergen Orokorra.
 - d) Martxoaren 19ko 4/2003 Arau Forala: Toki-zerga sistemaren berrikuntzarako
- b) Zergazkoak ez diren zuzenbide publikodun beste sarrera batzuen kudeaketari buruz, aplikatuko dira:
 - a) Ordenantza honetan sartzen diren Arauak.
 - b) Erreferentziako baliabidea erregulatzen duen legislatzio espezifikoak jasotzen dituen prezeptuak, baliabidea munizipala nahiz autonomikoa edota estatala izan.
 - c) Erregimen Juridiko eta Prozedura Administratibo Arruntaren azaroaren 26ko 30/1992 Legea.
- c) . Zergazko kreditu eta gainerako zuzenbide publikodun lokalen bilketari buruz, aplikatuko dira:
 - a) Ordenantza hau.
 - b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bilketa Arautegi Orokorra, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuz onartua.
 - c) Zerga- eta Aurrekontu Arau Foral Orokorrak.

II. EPEMUGA PERIODIKOA DUTEN ZERGEN KUDEAKETA

3. artikulua - Egutegi Fiskala

1. Orokorrean, izaera periodikoa duten zergak ordaintzeko periodoak hurrengoak izango dira:

Trakzio Mekanikodun ibilgailuen zerga:			2014/02/24	2014/04/30
Ondasun higiezinaren zerga:			2014/05/15	2014/07/04
Ekonomi jardueren zerga:			2014/10/06	2014/11/21
Zabor/bilketa:			2014/06/02	2014/08/22
Ibilgailuen sarrera:			2014/07/07	2014/08/22
Etxez etxeko asistentzia:			Hilabetero	1-24
Ura-Estolderia	2013/6	Azaroa/Abendua	2014/01/20	2014/02/28
	2014/1	Urtarrila/Otsaila	2014/03/17	2014/04/22
	2014/2	Martxoa/Apirila	2014/05/19	2014/06/27
	2014/3	Maiatza/Ekaina	2014/07/14	2014/08/29
	2014/4	Uztaila/Abuztua	2014/09/18	2014/10/31
	2014/5	Iraila/Urria	2014/11/17	2014/12/23

2. Domiziliatuta dauden erreziboak Udalak estimatzen duenen kobratuko ditu.



Lezoko Unibertsitateko Udala

3. Aurreko puntuan adierazitako pagu-periodoko bariazioak Alkatetzak onartuko ditu eta ez dira beren luzapenak onartuko aparteko zirkunstantziarik ez bada.

4. Borondatezko epean eskatutako gerorapen eta zatikapen erabakietan ez da berandutza interesik exijituko baldin eta haiei dagozkien zorrak aldizkako epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharreko zorrak badira eta horiek, guztiak sortzapenaren ekitaldi berean osorik ordaintzen badira.

4. artikulua - Erakusketa publikoa

1. Alkateak aginduko du egutegi fiskalaren publikazioa, Probintziako Buletin Ofizialean eta Udaletxeko taulan iragarritz.

2. Ordaindu beharreko kuotak eta haiek zehazten dituzten zerga-elementuak jasotzen dituzten errolda fiskalak Udaletxeko bulegoetan erakutsiko zaizkio herriari kobrantzako periodoak hasi baino hamar egun lehenago eta hamabost egunez.

3. Kuotak eta gainerako zerga-elementuak dagozkien erregistroetan altak ez direnez, eta bai egintza ezargarrria jadanik banan-banan subjektu pasiboari komunikatua, kolektiboki komunikatuko dira Zerga Arau Foral Orokorreko 124.2 artikulua aurreikusten duenaren arabera.

4. Errolden erakusketa publikoaren eta bertako likidazioen kontra erreposizio-errekurtsoa ezarri ahalko da kontentzioso-administratiboaren aurretik, erakusketa publikoaren datatik hasita hilabeteko epean.

5. artikulua - Kobrantza iragarkiak

Aurreko artikulua erregulatzen duen egutegi fiskalaren iragarkiak errolden erakusketa publikoa ezagutzera emateaz gainera beste funtzio bat ere bete dezake, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bilketa Arautegi Orokorreko 78. artikulua aipatzen duen kobrantza-iragarkia publikatzearen funtzioa alegia. Aipatu xedea bete dadin, hurrengo zirkunstantziak eman behar dira:

- a) Ordaintzeko bitartekoak: legezko kurtsoa duen dirua edota Udalaren aldeko txeke nominatiboa.
- b) Ordaintzeko tokiak: ordaintzeko dokumentuan agertzen diren entitate kolaboratzaileak
- c) a) atalean aipatzen diren pagu-periodoak iraganik, ohartaraztea zorrak premiamenduaren prozeduraz exijituko direla eta premiamenduaren errekargua, berandutze interesak eta, kasu balitz, gerta daitezkeen kostuak sortuko ditu.

6. artikulua - Helbidea

Subjektu pasiboak deklaratu helbide fiskala edota Udalak informazio-iturri berrien arabera zuzendutakoa, zergaduru bakoitzari dagokion kudeaketa-elementu bezala inkorporatuko da eta biltze-kudeaketaren ondoriozko notifikazio guztiak bidaliko zaizkion helbidea izango da.

III. EPEMUGA EZ PERIODIKOA DUTEN ZERGEN JESTIOA

7. artikulua – Likidazioen praktika.

Ordenantza Fiskalek agindu bezala, eta dagozkion ezarpen-tipoak aplikatuz, sarrera zuzeneko likidazioak egingo dira Udalak ezarpen-egintzaren baten berri duenean eta auto-likidazioa ez badu egina, baina 6 Euro,- behetiko zerga-kuotak ez dira igormenduko.



Lezoko Unibertsitateko Udala

IV. ONURA FISKALAK EMATEA

8. artikulua - Eskatera

1 Exentzio, murrizpen eta hobarien kontzesioa edota ukazioa zerga-tributu bakoitzaren arautegi bereziari atxikiko zaio eta inoiz ere ez da aplikatuko analogia exentzioen eta hobarien eremua bere terminologia zorrotzetik haratago hedatu asmoz.

2. Aurkako lege aurreikuspen zehatzik ezean, eskatu beharreko izaera du onura fiskalak aplikatzeak, eta beraz eskatu egin beharko dira instantzia Alkateari zuzenduz eta aldi berean eskatzaileak nahikotzat kontsideratuko duen argumentuz hornitua.

3. Izaera orokorrez, onura fiskalak emateak ez du izango atzera eraginik, eta beraz, onura fiskala ematea erabaki ondoren emango den lehenengo zerga-kobruaren momentuan sartuko da indarrean bere aplikazioa.

V. TRIBUTUZKOAK EZ DIREN KREDITUEN GESTIOA

9. artikulua - Erreintegroak

Okerreko paguren bat eginez gero, Kontuhartzaitza horretaz ohartu bezain azkar, jaso duenari errekerituko zaio bere kopurua atzera itzultzea seinalatuko zaion epe barruan. Obligazio hau beteko ez balitz, itzulpena premiamenduz eskatuko zaio.

10. artikulua - Exekuzio subsidiarioak

Zergaduruaren baitan eragina luketen lanak egingo balitu Udaleko pertsonalak (hala nola udal jabetza duen ohleria bideratu, muntatu eta desmuntatzea, hileta zerbitzuen lanak, ur-horniduraren sare nagusiari hainbat instalazio konektatzea eta beste hainbat) eta baita erabilitako materialen kostua ere, Zerbitzuko Arduradunak elaboratuko duen lanordu eta materialen parte kontuan hartuz fakturatuko dira (frakzio txikiena ordubeteko izanik, Hitzarmenean onartu zenaren arabera).

Dagokion espediente kontradiktorioa izapidetu ondoren. Suposamendu bakoitzari aplikatu behar zaion arautegiaren arabera, zergaduruari ezarriko zaizkio nola lanik gabe dagoenean burututako exekuzio subsidiarioen zenbatekoa hala udal-ondasunetan eragindako kalteen konponketak sortutakoa, kasuaren arabera.

VI. BILTZE GESTIOA

11. artikulua - Pagua atzeratzeko nahiz zatitzeko eskaera.

1. Atzerapena emateko irizpide orokorrak hurrengoak dira:

- a) 300 Euro baino zor txikiagoak gehienez ere hiru hilabete atzera daitezke.
- b) 300,- eta 600 Euro,- pezetaren arteko zorren ordainketa sei hilabete arte atzera daiteke edota zatitu.
- c) 600 € baino kopuru handiagoko zorren pagua urtebete arte atzera daiteke edota zatitu.

2. Behin Bilketa Zerbitzuak egoki identifikaturik zergadurua eta zorraren zenbatekoa, paguaren zatiketa ontzat emango zaie aurreko atalean aurreikusten den eran transferentzia periodikoaren agindua kreditatuko duen dokumentua aurkeztuko duten gutzietan.

3. Lehen aipatu diren zor-kopurua eta periodoen luzamenduaz bestelakoa ere aplikatu ahal izango da, zordunak aurkeztu dokumentazioaren arabera.

12. artikulua - Kreditu kobraezinak deklaratzeko proposamenak.

Prozedurazko legaltasunarekiko errespetua eta efikazia administratiboa bateratzeko asmoz, kredituak kobraezinezko deklaratzeko proposamenak formulatu ahal izateko irizpideak ezarriko dira. Dokumentazio



Lezoko Unibertsitateko Udala

justifikatzailea ezberdina izango da zorraren zenbatekoa eta ezaugarrien arabera, hurrengo suposamenduak bereiziko direlarik:

1. IFZ-rik ez duen edota egoki identifikatua ez duen zergadunen zorren espedienteak: exekutibaren pagu-epea iragan eta gero izapidetuko dira.
2. 60 € beheko kopuruak izanik, 2011-12-31 arte metatutako zorren espedienteak, zordunak ez badu zorrik 2012-1-1 dataz geroago likidatutako beste kontzeptuak direla eta.
3. 60 eta 3.000,- €en arteko kopuruak izanik, 2011-12-31 arte metatutako zorren espedienteak, zordunak ez badu zorrik 2012-1-1 dataz geroago likidatutako beste kontzeptuak direla eta, zorra behin notifikaturik eta hurrengo zirkunstantziak ematen badira:
 - a) Hainbat entitatetan egindako fondoan enbargoa negatiboa bada.
 - b) Soldataren enbargoa posible ez izatea, nominarik ez duelako.
 - c) Ondasun higiezinak bai izanik, hauen enbargoaren kostua zorraren kopuruarekiko neurrigabea izatea.
 - d) Ibilgailua bai izanik, honen tasazioa zorra baino txikiagoa izatea.
4. 2010-1-1 baino geroagoko zorren espedienteak, Udal Dirubilketak baloratuko du kreditu kobraezinen deklarazio-proposamena formulatzearen komenientzia, behin baja, zesioa edota zorraren objektua den ondasunaren transmisioa frogaturik.
5. Zorraren deribazioa bidezkoa luketen espedienteak, behin baja, zesioa edota zorraren objektua den ondasunaren transmisioa frogaturik.
 - a) Pertsona fisikoentzat, zorra 30 Eurotz behetikoa bada.
 - b) Jabekidetzat edo komunitateentzat, zorra 60 Eurotz behetikoa bada.
 - c) Merkatal sozietateentzat, zorra 300,- Eurotz behetikoa bada.

VII. ARAUHAUSTE ETA ISUNAK

13. artikulua – Arau hauste arinak.

1. Tributuen kudeaketa dela eta edozein pertsonari, subjektu pasiboa izan ala ez, eska dakizkiokeen tributuzko obligazio edo betebeharrak ez betetzea, arau hauste arina izango da arau hauste larriak ez badira eta isunaren graduazioko elementu ez badira.

1.1. Bereziki arau hauste arinak izango dira eta 150 € isuna izango dute hurrengo portaerek:

- a. Deklarazioak ez aurkeztea edota deklarazio faltsuak edota osoak edo zehatzak ez direnak egitea, hurrengo artikuluen arabera arau hauste larria ez bada.
- b. Zerga Arautegi Foral Orokorreko 111 eta 112 artikuluetan ezarritako bere harreman ekonomiko, profesional edo finantzieroa direla eta zergan eragina luketen datuak, argibideak edo aurrekariak emateko obligazioa ez betetzea.
- c. Zentsuak eragina luketen datuak emateko obligazioa ez betetzea, besteak beste: Izaera Urbanoa duten Terrenoen Balioaren Hazkundearen gaineko Zergapekoak ondasun higiezinari buruz gerta daitezkeen alta edo baja deklarazioak aurkezteko obligazioa, maila fisiko, ekonomiko edo juridikoko bariazioak.
- d. Udalak zernahi dela eta egindako errekerimenduak ez atenditzea.
- e. Administrazioaren zerga-egintzei jarkitzea, aitzakiak jartzea edota uko ekitea, nola kudeaketa edo inspektzio fasean hala biltegiarenean.

1.2. Bereziki arau hauste arina izango da eta 90 €ko isuna izango du Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergapekoak ibilgailuei buruz alta edo baja deklarazioak aurkezteko obligazioa eta maila fisiko, ekonomiko edo juridikoko bariazioak ez aurkezteak.

Hau guztia Zerga Arautegi Foral Orokorreko 83. artikuluen eta 82ko graduazio irizpideen arabera kopuru handiagoko isunak jartzearen kalterik gabe.

2. Artikulu honetan kontenplatu ez diren arau hauste arinak, oro har, 30 €ko kopuruz isunduko dira.
3. Arau hauste arinen isunek, kasu balitz zergaduruaren egoera fiskala erregulatzeko instruitu den espedienteaz ezberdina eta independentea izango dute eta Alkatetza Lehendakariak ezarritako ditugokion aktuatzaileak aurrez txosten motibatua emanik.



Lezoko Unibertsitateko Udala

1- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak arautzen dituen Foru Arauaren eta tributuaeren Arau Foral partikularraren arabera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga exijitzen du Ordenantza honetan oinarriturik, zeinaren parte baita aplikatu beharreko karga-tipoak jasotzen dituen Eranskina eta 2004ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

2. artikulua

Lezoko Udalerrian aplikazio zuzena izango du Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren uztailaren 5eko 12/1989 Arau Foralak eta baita hau garatzen duen arautegi forala ere, Ordenantza Fiskal honetan arautzen ez diren aspektu guztietan, eta, zehazki, egintza ezargarria, tributuaeren subjektu pasiboa eta erantzuleak, exentzioak, murrizketa eta hobariak, oinarri ezargarri eta likidagarria, tributua-kuota, periodo inpositiboa eta sortzapena eta tributuaeren gestioa zehaztu behar dituztenak.

3. artikulua

Udal honek, 12/1989 Arau Foralak, 14.4. Artikuluan damaion baimenez baliatuz, Zerga honen karga-tipoa zehazten du eranskinean agertzen diren terminoetan.

4. Artikulua.- Hobariak

Ohiko bizileku gisa erabiltzen den ondasun higiezin hiritarrak, baldin eta subjektu pasiboak familia ugariaren titularra dela legezko agiri bidez ziurtatzen bada; hobaria, dena dela, ehuneko eta muga hauen baitan izango da.

Hobaria familia ugari den bitarteko zergaldietan aplikatuko da, honako zenbateko eta muga hauek oinarri:

Kategoria orokorra:

- Hiru seme-alaba edo baliokidea, kuotaren %20, muga 200 euro dela.
- Lau seme-alaba edo baliokidea, kuotaren %30, muga 200 euro dela.

Kategoria berezia:

- Bost seme-alaba edo baliokidea, kuotaren %70, muga 250 euro dela.
- Sei seme-alaba edo baliokidea, kuotaren %80, muga 250 euro dela.
- Zazpi seme-alaba edo gehiago zein baliokidea, kuotaren %90, muga 500 euro dela.
-

Lau seme-alabako famili unitateek kategoria berezian sailkatzea ziurtatzen badute, bost seme-alabako baliokidetzat hartuko dira.

Seme-alaba ezindu edo lanerako ezgaitua bi moduan zenbatuko da seme-alaba kopurua neurtzeko orduan. Familia ugariak babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeaz bat, ezindutzat hartuko da %33 edo gehiagoko minusbaliotasuna duen pertsona eta lanerako ezgaitutzat ezintasun iraunkor absolutuaren edo elbarritasun handiaren baliokideren bat duena.

Familia ugaria izatea egiaztatuz, eskaerak udaleko sarrera erregistroan aurkeztu behar dira, otsailaren 28a baino lehen, eskatzen den urtean eragina izan dezaten.

Epe horrez kanpo aurkeztuz gero hurrengo ekitaldian hartuko dira kontuan.

Eranskina

- ❑ Izaera urbanoa duten Ondasun Higigaitzen gaineko Zergari aplikatzekoa zaion karga-tipoa: **0,3004**
- ❑ Izaera urbanoa lur industrial edo tertziarioan duten Ondasun Hirigaitzen gaineko Zergari aplikatzekoa zaion karga-tipoa: % **0,6000**
- ❑ Izaera rustikoa duten Ondasun hirigaitzen gaineko zergari aplikatzekoa zaion karga-tipoa: **1,0487**



Lezoko Unibertsitateko Udala

2. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGAREN ERREGULAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak arautzen dituen Foru Arauaren eta tributuaeren Arau Foral partikularraren arabera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga exijitzen du Ordenantza honetan oinarriturik, zeinaren parte baita aplikatu beharreko egoeraren koefiziente eta indizea jasotzen dituen Eranskina, eta 2004ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

2 artikulua

Lezoko Udalerrian aplikazio zuzena izango du Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren apirilaren 20ko 1/1993 FORU ARAUA eta baita hau garatzen duen arautegi foralak ere, Ordenantza Fiskal honetan arautzen ez diren aspektu guztietan, eta, zehazki, egintza ezargarria, tributuaeren subjektu pasibo eta erantzuleak, exentzio, murrizketa eta hobariak, tributu-kuota, periodo inpositiboa eta sortzapena eta tributuaeren gestioa zehaztu behar dituztenak.

3. artikulua

Udal honek, Arau Foralak damaion baimenaz baliatuz, Zerga honen karga-tipoa zehazten du eranskinean agertzen diren terminoetan.

4.artikulua. Salbuespenak

1. Honako hauek salbuesten dira zergatik:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta udal entitateak, eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.
- b) Beren jarduerari ekiten dioten subjektu pasiboak, jarduera garatzen duten lehen bi zergaldietan. Ondorio horietarako, jarduera batean lehenago beste titularitate batekin aritu bada, jarduerari ez zaiola hasierarik ematen ulertuko da; zirkunstantzia hori betetzen dela joko da, besteak beste, bategiteak, zatiketak edo jarduera adarren ekarpenak egiten direnean.
- c) 1.000.000 eurotik beherako eragiketa bolumena duten subjektu pasiboak.Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena lurralde espainiarrean establezimendu iraunkor bidez jarduten dutenei bakarrik aplikatuko zaie, beti ere euren eragiketa bolumena 1.000.000 eurotik beherakoa bada.

Edozein kasutan ere, salbuespena aplikatu ahal izateko, ondoko hau ezinbestekoa da: letra honetan aipatzen den eragiketa bolumenik betetzen ez duen ezein enpresak ez edukitzea subjektu pasiboen kapitalean, dela zuzenean dela zeharka, 100eko 25etik gorako partaidetzarik, salbu eta enpresa horiek kapital-arriskuko fondo edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak badira, hain zuzen ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 59. eta 60. artikuluetan aipatuak hurrenez hurren, eta partaidetza hori sozietate horien xede soziala betetzeagatik sortzen bada.

Letra honetan jasotzen den salbuespena aplikatzeko, erregela hauek hartuko dira kontuan:

- 1) Subjektu pasiboaren eragiketa bolumena maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzekoak, 14. artikuluaen bi apartatuan xedatutakoari jarraiki zehaztuko da.
- 2) Errenta Zergaren eta Sozietate Zergaren subjektu pasiboen kasuan, eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, eragiketa bolumena zerga honen sortzapena gertatu baino bi zergaldi lehenago lortutakoa izango da, beti ere zerga horiek aitortzeko epea sortzapenaren aurreko urtean amaitu bada.Sozietate zibiletan eta Zergen Foru Arau Orokorrak 33. aipatzen dituen entitateetan, eragiketa bolumena zerga honen sortzapena gertatu baino bi urte lehenago lortutakoa izango da.Zergaldia urte naturala baino txikiagoa bada, eragiketa bolumena urtearekin parekatuko da.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- 3) Eragiketa bolumena kalkulatzeko, subjektu pasiboak egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan. Entitatea sozietate talde bateko kide bada Merkataritza Kodeak 42. artikuluan jasotakoaren arabera, lehen esandako magnitudeak talde horretako entitateen multzoari buruzkoak izango dira. Irizpide bera aplikatuko da baldin eta pertsona fisiko bat, dela bere kabuz, dela beste pertsona fisiko batzuekin batera (zuzeneko edo zeharkako ahaidetasun harreman batengatik egon daitezke hari lotuak, harreman hori odolkidetasunezkoa edo ezkontza bidezkoa izan, bigarren mailaraino, hau barne), Merkataritza Kodeak 42. artikuluan aipatutako kasuetako batean aurkitzen bada kide den beste entitate batzuei dagokienez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan jasotzen diren kasuak, abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak urteko kontu bateratuak formulatzeko onartutako arauak I. kapituluaren 1. sekzioan ezarritakoak izango dira.

- 4) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkorren multzoari egotzi beharrekoa izango da eragiketa bolumena.

- d)** Gizarte Segurantzaren entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.
- e)** Ikerkuntzako organismo publikoak, maila guztietako irakaskuntza zentroak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Foru Aldundiaren edo udal entitateen fondoekin nahiz ongintzazkoak edo herri onurakoak izendatutako fundazioen baliabideekin osorik finantzatuak, eta, orobat, irabazi asmorik gabekoak izanik, hezkuntza-itunen erregimenean dauden ikastetxeak, beren maila guztietan, baita euren ikasleei liburu edo artikulua eman edo mantenu erdia zein barnetegia eskaintzen dizkietenean ere, nahiz eta salbuespenez baino ez, irakasteko erabilitako tailerretan lortutako produktuak establezimenduan bertan saltzen diren, baldin eta salmentaren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.
- f)** Gutxitu fisiko, psikiko eta sentsorialen irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioak, pertsona minusbaliatuen alde irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta tutoretza mailan egiten dituzten pedagogia, zientzia, laguntza eta enplegu jarduerengatik, baita xede horietara zuzendutako tailerretan lortutako produktuak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.
- g)** Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauak, ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik zerga pizgarriak ematekoak, jasotakoaren arabera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan salbuespenaren zerga onura aitortua duten entitateak.
- h)** Elkartearen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarteak, baldin eta udal honekin elkarlanean jarduerak egiten badituzte. Horretarako, udal organo eskudunak herri onurakoak izendatu behar ditu elkarteak. Salbuespena elkarte horien berezko zeregin diren eta gutxieneko udal kuotarekin zergapetzen diren jarduerari aplikatuko zaie.
- i)** Salbuespena nazioarteko itun edo hitzarmenen indarrez aplikagarri duten subjektu pasiboak.

2.- Artikulu honen 1 apartatuko b), e), f) eta h) letretan jasotzen diren salbuespenek erreguzko izaera izango dute, eta interesatuak eskatuta emango dira, hala badagokio.

5. artikulua. Hobariak

1. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriek honako hobariak egin ahal izango dituzte:

- a)** Kooperatiba babestuei, horien elkarte, federazio eta konfederazioei eta eraldaketarako nekazaritza sozietateei, kuotaren %25, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko maiatzaren 22ko 2/1997 Foru Arauak jasotakoaren arabera.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- b) Kuotaren %10eko hobaria enplegua sortzen duten subjektu pasiboentzat, baldin eta udal kuota ordaintzeaz gainera, hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian kontratu mugagabea duten langile kopuruaren batez bestekoa aurreko zergaldiaren aldean gehitu badute.
- c) Kuotaren % 10eko hobaria , udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldintza hauek betetzen dituztenean:
- ❑ Energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta.Ondorio horietarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean jaso eta halakotzat definitzen direnak dira. Kogenerazio sistemak, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria aldi berean ekoizteko balio duten ekipo edo instalazioak dira.
 - ❑ Beren industri jarduerak udalerriko gune jendeztatuenetik urrun dauden lokal edo instalazioetan egitea, dela jarduera hasten dutenetik, dela jarduera tokiz aldatzen dutenean.
 - ❑ Langileei zuzendutako garraio plan bat ezartzea lanpostura joateak dakarren energia kontsumoa eta sortutako isuriak murrizteko, eta garraio biderik eraginkorrenen erabilpena, garraio publikoarena edo partekatuarena kasu, sustatzeko.
- d) Kuotaren % 10eko hobaria , subjektu pasiboek gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenean eta hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian jardueratik lortu duten errenta edo etekin garbia negatiboa.
2. Letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.Aurreko 1 apartatuko a), eta b) letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko c) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.
3. Aurreko 1 apartatuko a), b), eta c letretan aipatzen diren hobariak aplikatzea bidezkoa bada, hortik ateratzen den kuotari aurreko 1 apartatuko d) letran jasotako hobaria aplikatuko zaio.

ERASKINA

- ❑ Finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra: **2,2**
- ❑ Udalerriko bide publikoen sailkapena
Kategoria bakarraren: **2**
- ❑ Ponderazio Koefiziente %....
 - ❑ 1.000.000,00 eta 5.000.000,00 bitartean **1,29**
 - ❑ 5.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartean **1,30**
 - ❑ 10.000.000,01 eta 50.000.000,00 bitartean **1,32**
 - ❑ 50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartean **1,33**
 - ❑ 100.000.000,00 euro baino gehiago **1,35**
 - ❑ Negozio-zifra garbirik gabe **1,31**



Lezoko Unibertsitateko Udala

3.-TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. KAPITULUA: Izaera eta zergaia

1.artikulua.

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko tributua da, haien mota, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein direla ere, eta zirkulazio baimenean ageri den helbidea Lezoko udalerrian dagoenean exijitzen da.
2. Ibilgailua zirkulatzeko gai izango da bidezko erregistro publikoetan matrikulatua izan denean eta haietan oraindik baja emanda ez dagoenean. Aldi baterako baimena dutenak eta turismo matrikula daramatenak ere zirkulatzeko gai izango dira zerga honen ondorioetarako.
3. Ondoko hauek ez daude zerga honi lotuta:
 - a) Aspaldiko modeloak izateagatik erregistroetan baja emanda egon arren, kasu berezietan zirkulatzeko baimendu daitezkeenak haientzat antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla eta.
 - b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, hauen karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez denean.

II. KAPITULUA: Salbuespenak

2. artikulua.

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:
 - a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.
 - b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada. Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.
 - c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.
 - d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren ambulantiak eta gainerako ibilgailuak.
 - e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak. Hau da, 350 kg-tik gorako tararik ez duten ibilgailuak, beren eraikuntzagatik toki lauan 45 km. orduko abiadura gainditu ezin dutenean eta arazo edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko bereziki proiektatu eta eraiki direnean (eta ez bakarrik egokitu).
 - f) Era berean, salbuetsita daude minusbaliatuen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.
 - g) Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.
 - h) Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, legez 100eko 33ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila dutenak izango dira pertsona minusbaliatuak.
 - i) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.
 - j) Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaz hornituta daudenean.
2. Artikulu honen 1 apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.



Lezoko Unibertsitateko Udala

3. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, ibilgailuen titularrek udalerrri honetan egon beharko dute erroldatuta, eta zergaz salbuesteko eskaera Udaletxeko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztu. Eskaerari honako agiriok erantsiko dizkiote:

- a) Ibilgailuak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direnean edo minusbaliatuen izenean eta horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta daudenean:
 - ❖ Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia.
 - ❖ Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
 - ❖ Gizartekintzak edo bere ordeaz diharduen erakunde edo agintari administratiboak luzatutako ziurtagiri originala.
- b) Traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta nekazaritzako makinak badira:
 - ❖ Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
 - ❖ Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
 - ❖ Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.

III. KAPITULUA: *Subjektu pasiboak*

3.artikulua

Honako hauek dira zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorren 33. artikuluan aipatutako entitateak, zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean ageri denean.

IV. KAPITULUA: *Zergaldia eta sortzapena*

4.artikulua.

1. Zergaldi bat dator urte naturalarekin, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean. Horrelakoetan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, eta Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.
2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

V. KAPITULUA: *Zerga kuota*

5.artikulua.

1. Eranskinean jasota dauden tarifen taulari jarraiki exijituko da zerga.
2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja ematen zaion hilabetea barne. Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota modu berean hainbanatuko da.
3. Aurreko apartatuko tarifak aplikagarri izango dituzten ibilgailu motak zehazteko, kontuan hartuko da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretua, hain zuzen ere, ibilgailu mota desberdinen kontzeptua ezarri eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko arauak finkatzen dituena. Zehazki esanda:
 - a) Zerga honen ondorioetarako, bere tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. eranskinean jasotakoa izango da.
 - b) Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa tributatu dute beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatu dezaketenean, kamioi gisa tributatu baitute orduan.
 - c) Auto-karabanez turismo gisa tributatu dute beren potentzia fiskalaren arabera.-
 - d) Edozein kasutan ere, tarifa horien D) letran adierazitako traktoreen errubrika orokorrak honako hauek ere hartzen ditu: «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikoko beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autobultzatuak.
 - e) Hiru gupileko ibilgailuak eta kuartzikloak motozikletatzat hartuko dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera tributatu dute. Kuartziklo arinek, beren aldetik, ziklomotore gisa tributatu dute.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- f) Ibilgailu artikulatuen kasuan, arrasteko potentzia daramak eta arrastean eramandako atoei eta erdi-atoei aldi berean eta bereizita tributatu dute.
- g) Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzeak, V. eranskinean xedatutakoaren arabera ezarriko da.

VI. KAPITULUA: Hobariak

6. artikulua.

1. Izaera orokorrez, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik. Dena den, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

2. Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenek % 100eko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

25 urte baino gehiago dituztenei udalak ofizioz aplikatuko die salbuespena.

VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa

7. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den helbidea bere udalerrian dagoenean, zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, eta orobat, zerga kudeaketan emandako egintzak berrikustea Lezoko Udalaren ardura da.

8. artikulua.

Matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta hartzen duten ibilgailuen kasuan, auto-likidazio erregimenean kudeatzen da zerga, eta gainontzeko ibilgailuen kasuan, berriz, Udalak urtero egiten duen Erroldaren bidez.

Aitorpen-likidazioak Udaletxean aurki daitezkeen inprimaki normalizatuak erabiliz egingo dira. Aitorpen-likidazio horiek kalkulurako beharrezkoak diren elementuak jasoko dituzte, eta agiri hauek erantsita aurkeztuko dira: ibilgailua erosi edo aldatu izanaren frogagiriak, ezaugarri teknikoaren ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko zenbakia.

Aitorpen-likidazioa behin bere esku duela, interesatuak bulego kudeatzailean edo entitate laguntzaile batean ordaindu ahal izango du zerga kuotaren zenbatekoa. Edozein kasutan ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatuko du ordainketa behar den zenbatekoagatik egin dela, eta aitorpen inprimakia egiaztatu izana adieraziko du.

9. artikulua.

1. Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun agiria edo behin betiko baja eskatzen diotenei Zerga ordaindu izana frogatu beharko dute alde aurretik.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen dietenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horregatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea.

Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.

3. Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretik Zerga ordaindu izana frogatzen ez bada.



Lezoko Unibertsitateko Udala

10. artikulua.

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

VIII. KAPITULUA: Betebehar formalak eta zerga arlokoak

11. artikulua.

Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

IX. KAPITULUA: Erroldak

12. artikulua.

1. Matrikulatuta dauden edo zirkulatzeko gai diren ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuotak urte bakoitzeko lehen hiruhilekoaren barruan eta Udalak erabakitzen duen kobrantza aldian ordainduko dira. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ediktuak argitaratuz eta legeriak aurreikusten dituen edo egoki jotzen diren bestelako baliabideak erabiliz emango da horren berri.

2. Aurreko apartatuan araututako kasuan, urteko errolda erabiliz bilduko dira kuotak. Erroldaren aldaketak Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan oinarrituko dira.

3. Errolda edo zergaren matrikula jendaurrean erakutsiko da interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Horretarako epea 30 egunekoa izango da, kobrantza aldia hasten denetik aurrera.

Jendaurreko erakusketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta subjektu pasibo bakoitzari likidazioa jakinarazteko balio izango du.

X. KAPITULUA: Itzulketak

13. artikulua.

Ibilgailuari zerga sortu ondoren ematen bazaio behin betiko baja eta, ordurako, kuota ordainduta badago, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatu ahal izango du Ordenantza Fiskal honen 5.2 artikuluan aipatzen den hainbanaketa aplikatuta.

14. artikulua. Xedapen gehigarria

11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, zerga honi Zergen Foru Arau Orokorrak kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari buruz nahiz zerga urraketa eta zigorrei buruz jasotzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.

15. artikulua. Amaierako xedapena

Ordenantza honek 2004eko urtarrilak 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak, eta bere eranskinak 2004eko urtarrilak 1etik aurrera; indarrean jarraituko dute horiek indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.



Lezoko Unibertsitateko Udala

ERASKINA

A) TURISMOAK	€
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	43,74
9tik 11,99ra bitartekoak	87,46
12tik 13,99ra bitartekoak	159,99
14tik 15,99ra bitartekoak	223,98
16tik 19,99ra bitartekoak	287,98
20 baino handiagokoak	351,96
B) AUTOBUSAK	
21 toki baino gutxiagokoak	221,74
21etik 50era bitartekoak	315,82
50 baino gehiagokoak	394,77
C) KAMIOIAK	
1.000 kg. baino gutxiago eramateko modukoak	112,55
1.000tik 2.999 kg. bitartekoak	221,74
2.999tik 9.999 kg. bitartekoak	315,82
9.999 kg. baino gehiago eramateko modukoak	394,77
D) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	30,87
16tik 25era bitartekoak	56,23
25 baino gehiagokoak	190,73
E) ATOIAK Y ERDI-ATOIAK, TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEK GARRAIATUTAKOAK	
1.000 kg. baino gutxiago eramateko modukoak	47,03
1.000tik 2.999 kg. bitartekoak	73,92
2.999 kg. baino gehiagokoak	221,74
F) BESTE ERA BATZUETAKO IBILGAILUAK	
Ziklomotoreak	9,59
125 c.c. baino gutxiagoko motorrak	9,59
125tik 250 c.c. bitartekoak	20,15
250tik 500 c.c. bitartekoak	40,33
500tik 1.000 c.c. bitartekoak	80,63
1.000 c.c baino gehiagokoak	161,27



Lezoko Unibertsitateko Udala

4. HIRILURREN BALIOAREN HAZKUNDEAREN GAINEKOZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak arautzen dituen Foru Arauan eta zergaren Foru Arau partikularrean aurreikusitakoari jarraiki, hiritar izaerako lurren balio gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta galdatzen du Ordenantza honen arabera, honen parte osagarri delarik portzentaien taula eta tarifa aplikagarriak dauzkan Eranskina.

2. Artikulua

Gozamen, jabetza soil, erabilpen eta bizitze-eskubideak baloratzeko Ondare Transmisioen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren 18/1987 Arau Foralak jasotzen dituen erregelak hartuko dira kontuan.

3. Artikulua

Transmisio-datatzat edukiko da:

- a) Bizidunen arteko egintza edo kontratuetan, dokumentu publikoaren egile-penarena, eta dokumentuak pribatuak badira, hauek erregistro publikoan ezarri edo inskribatzearena edota duen ofizioagatik funtzionario publiko bati entregatzen zaion eguna.
- b) Heriotzaren kausazko transmisioetan, kausatzailearen heriotza eguna.

4. Artikulua

1. Subjektu pasiboak behartuak egongo dira dagokion zergaren deklarazioa Udal Administrazioari egitera honek eskuratuko duen eredu ofizialean, non jasoko diren tributuarekiko elementuak eta kuota seinatzeko beharrezko eta nahitaezkoak diren gainerako datuak.
2. Udal Administrazioak errekeritu ahalko die pertsona interesatuei interesatuak eskatuta luza daitezkeen hogeita hamar eguneko epean ekar ditzatela Zerga likidatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten dokumentuak, formulariko errekerimenduak aipatu epeen barruan atendituko ez dituztenak dagozkien zerga-arauhauste eta zigorretan eroriko direlarik, aipatu dokumentuak deklarazioa frogatzeko beharrezkoak diren neurrian. Aipatu dokumentuak interesatuak bere onura eskusiborako bakarrik alegatu dituen zirkunstantziak frogatzeko badira, errekerimendua ez betetzeak likidazioaren praktika erabakiko du alegatu eta justifikatuak ez diren zirkunstantziak kontuan hartu gabe.
3. Udal Administrazioak jakingo balu ez dela deklaratu egintza ezargarriren bat, egintza ezargarri hau jakitera emateko obligazioa zutenak errekeritu ahalko ditu aipatu deklarazioa formulatzera, arau hauste tributarik posibleen eta, ondorioz, legozkiokeen isunen kalterik gabe.
4. Lehen aurreikusitako errekerimenduak Udal Administrazioak behin kurtsaturik, interesatuek ez dute aurkeztuko dagokion deklarazioa, ofizioko espedienteari ekingo zaio bere esku dauden datuekin eta dagokion likidazioa praktikatu du, kasu balitz sarrerako epeak eta bidezko errekursoak adierazi eta seinatuz, dagozkien zerga-arauhausteak aplikatzeko eta, kasu balitz, zigorrak aplikatzeko kalterik gabe.

PORTZENTAIEN TAULA

ALDIA URTEKO	Portzentajea
a) Urtebetetik 5 urtetara	3,6
b) 10 urterarte	3,4
c) 15 urterarte	3,1
d) 20 urterarte	2,9

TARIFA. Karga tipoa

%15



Lezoko Unibertsitateko Udala

5. ERAIKETA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEGAZGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak arautzen dituen Foru Arauaren eta tributuaren Arau Foral partikularraren arabera, Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zerga exijitzen du Ordenantza honetan oinarriturik, zeinaren parte baita aplikatu beharreko karga-tipoak jasotzen dituen Eranskina, eta 2004ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da.

2. Artikulua

Lezoko Udalerrian aplikazio zuzena izango du Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren uztailaren 5eko 15/1989 Arau Forala eta baita hau garatzen duen arautegi forala ere, Ordenantza Fiskal honetan arautzen ez diren aspektu guztietan, eta, zehazki, egintza ezargarria, tributuaren subjektu pasiboa eta erantzuleak, oinarri ezargarria, tributu-kuota, sortzapena eta tributuaren gestioa zehaztu behar dituztenak.

3. Artikulua

Udal honek, 15/1989 Arau Foraleko 3-3 artikulua dama-ioten baimenaz baliatuz, Zerga honen portzentajeren karga-mota finkatu du eranskinean agertzen diren terminoetan.

4. Artikulua

Zerga honen egintza ezargarria izango da edozein eraikuntza, instalazio edo obra hirigintza obrei dagokien lizentzia lortzea eskatu bada, indarrengo Arau Subsidiarioak aplikatuz, lizentzia hau lortu bai ala ez, beti ere hau luzatzea Udalari badagokio, interesatuak hala eskaturik nahiz exekuzioz agindua edo eskaera emanda izapideturik.

5. Artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak izango dira, zerga-buru bezala, pertsona fisiko zein juridikoak eta Lurralde Historikoko Zerga Arautegi Foral Orokorreko 33.artikuluak aipatzen dituen entitateak, hauek izanik eraiketak, instalazioak eta obrak egiten diren eraikinen jabeak, beti ere obren jabeak badira; beste kasuetan obraren jabetza azalduko duena izango da zerga-burua.

2. Udal tributu Administrazioaren aurrean eta era fedemailean ez bada frogatzen obraren jabetza obra egiten den eraikinen jabea ez den beste pertsona edo entitate bati dagokiola, eraikinen jabea izango da obra-jabea ere.

6. Artikulua.

1. Zergadunaren ordeko subjektu pasiboak izango dira eraiketa, instalazioa edo obrak burutzeko dagozkien lizentziak eskatuko dituztenak, zergadunak berak ez balira.

2. Dena dela, Udal Administrazioak zergadunaren ordekoari eskatu ahalko dio zergaduruaren kondizioa duen pertsona edo entitateari bere nortasuna eta helbidea emateko.

7. Artikulua.

1. Zergaren oinarri ezargarria osatzen du eraiketa, instalazio edo obraren kostu erreal eta efektiboak.

2. Aurreko zenbakian esaten denaren arabera, interesatuek aurkeztutako exekuzio materialaren aurrekontua hartuko da kontuan, beti ere dagokion Kolegio Ofizialak bisatua izan bada.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Bertan ez balira espresuki agertuko onura industrial eta gastu orokorren partidak, onura industrialaren kontzeptuan %13 deduzituko da eta gastu orokorren kontzeptuan %6.

3. Aurreko atalean adierazten diren ezaugarriekin aurrekonturik ez balego, eta eraiketa, instalazio eta obren kasuan arauzko lizentzia ez balitz lortua, oinarri ezargarria udal teknikariek zehaztuko dute proiektuaren kostu estimatua aintzakotzat harturik.

8. Artikulua

Zerga honen kuota eratzeko Eranskinean agertzen diren karga-motei oinarri ezargarria aplikatzearen emaitza erabiliko da.

Obrak ez badira burutu kuota atzera itzuli egingo da zeinahi izanik ere kausa (bertan behera uztea, lizentziaren iraungipena...).

9. Artikulua

Lizentzia emateko orduan kitatuko da, behin-behingo, zerga. Zergaren oinarria, lehen esan dugunez, lana egin nahi duenak ekarritako aurrekontua izango da, bere elkargo ofizialak ikus-onetsiatakoa izanez gero, edozein moduz ere. Bestela, Udaleko teknikariek berek erabakiko dute (proiektuari begiratuta) zenbati erantsi behar zaion zerga.

10. Artikulua

Lizentzia eman eta gero proiektua (aurreneko proiektua) aldatuz gero, proiektu berria ekarri behar da, berriz kitatzeko, behin-behingo, zerga. Hartarako, aurrekontu berriari begiratuko zaio, eta lehengo aurrekontutik gora jotzen duen kopuruari dagokion zerga da kitatuko dena.

11. Artikulua

1. Eraikuntza, instalazioa edo obra bukatu eta gero, zer kostatu den ikusi eta daitekeena da Udalak zergaren oinarria aldatzea. Izan ere, orduan kitatuko da zerga behin-betiko: behin-behingo kitatutakoa baino gehiago ateratzen bada, aldea eskatu egingo du Udalak, eta gutxiago ateratzen bada, itzuli.

2. Hartarako, zerga behin-betiko kitatzeko, lana bukatu izana edo behin-behingo hartu izana adierazi behar zaio Udalari (Udalak emandako orria beteta), bukatu eta hilabete baino lehen. Agiri horrekin batera, ordea, lanen zuzendariak egindako ziurtagiria ere ekarri egin behar da, haren kolegioak ikus-onetsia, hartarako biderik izanez gero. Zuzendariaren agirian, obra guztia zer kostatu den jarri behar da, alderdi guztiak sartuta: proiektua egitea eta zuzentzea zer kostatu den, irabazi industrialaren zenbat izan den eta beste gainerako kostu guztiak.

12. artikulua

Udalak egingo dituen urbanizazio lanak burutzeko, egun dauden urbanizazioei dagozkienak nahiz urbanizazio lan berriak proposatzen dituztenak, berme bat eskatuko da, lanak burutuko direla bermatuko duena.

Dauden urbanizazioen kasuan, berrezarpen lanen kontrata-aurrekontuaren baliokidearen %100aren bermea eman beharko da. Bermea behin-behineko harrera egin denetik urtebetera itzuliko da. Bueltatzeko epea obren tamainaren eta udal zerbitzuen txosten teknikoaren arabera murriztu daiteke.

Urbanizazio berrien kasuan, berrezarpen lanen kontrata-aurrekontuaren baliokidearen %100aren bermea eman beharko da. Bermea behin-behineko harrera egin denetik urtebetera itzuliko da.

ERASKINA



Lezoko Unibertsitateko Udala

TARIFA MOTA

PORTZENTAJEA

<input type="checkbox"/> Obra jakinerazpenaren tramitazioaren bidez bideratutako obrak	%1
<input type="checkbox"/> Babes Ofizialeko Etxebizitza berrien eraikuntza	%2,5
<input type="checkbox"/> Fatxada eta teilatuen konponketa eta garbiketa lanak	%2,5
<input type="checkbox"/> Kasko Historikoan dauden eraikuntzetako obrak	%2,5
<input type="checkbox"/> Nekazaritza usiategietako eraiketa, instalazio eta obrak	%2,5
<input type="checkbox"/> Gainontzeko eraiketa, instalazio eta lanak	%5

HOBARIAK

Ondoren seinalatutako obra hauek, udalak interes orokorreko hartzen ditu eta kuotaren **%95eko hobarria** izango dute:

1.- Monumentu historiko eta artistikotzat jotako eraikuntzetan egindako lanak

- Kale Nagusia: 2,4,5,6,8,11,13,15,16,20,22,30,31,32,34.
- Gurutze Santuaren Plaza: 2, 4, 6,8.
- Zubitxo Kalea: 13
- Goiko Plaza: 6
- Donibane Kalea: 2
- Gaintza, baserria
- San Juan Bataiatzailearen parrokia.
- Gurutze Santuaren Basilika.
- Hezkuntzarako Eraikina
- Gizarte Onurarako elkarteak



Lezoko Unibertsitateko Udala

6.-PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.UDAL JABARI

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II- ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak eratzten du zerga-gaia.

III- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

2. Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3. Estatu, autonomia elkarrekin eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin zer ikusia duten guztietan.

5. artikulua.-

Tasen ordaintza lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, aprobetxamenduaren onuradun direnek.

IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua.-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.



Lezoko Unibertsitateko Udala

V- OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua.-

Oinarri ezargarrria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI- KUOTA

8. artikulua.-

1. Zerga kuota tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

2. Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztatik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalte-ordainak edo diru-itzulketak.

VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua.-

1. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada.

2. Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3. Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX- TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.



Lezoko Unibertsitateko Udala

6.1. UDAL BIDE PUBLIKOEN LURZORU, LURPE EDO HEGALKINAREN ERABILPEN PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA, HORNIDURA ZERBITZUEN ENPRESA USTIATZAILEEN ALDE.

Tarifa: aipatu enpresek udalerrian fakturazioaren bidez lortutako sarrera gordinen **%1,50**.

Justu aurreko hiruhilabetekoan herri barruan egindako horniduren bidez lortutako sarrera gordinen deklarazioa aurkeztu beharko dute enpresei hiruhilabetekoan naturalaren epemugaren ondoko 30 lanegunen barruan, eta bertatik eskatu ahalko zaie.

Enpresa esplotatzaileek gainera zorua, zorupea edota udal instalazioen hegazkina erabiltzen badituzte, Udalak erabilpen honen kanon bezala **31,21 €/m²**-ko likidatuko ditu urteko.

Aipatu aitorpenarekin batera enpresarekin kontabilitatearen laburpena eta kasu bakoitzean Udal Administrazioak eskatuko dituen agiriak aurkeztu beharko dira.

Udal Administrazioak tasa honen zehazketa edo behin behineko kobratzea egingo du, preskripzio-epaiearen barruan likidazio akabaila egiteko kalterik gabe.

6.2.- IBILGAILUAK FINKA BARRURA SARTZEA ETA IBIAK

6-2-1 Ibilgailuen sarrera

PLAZAK	EUROAK
1/5	27,81 €
6/20	83,42 €
21/100	163,64 €
101/200	326,21 €
201/Aurrera	652,41 €

6-2-2 Hibi iraunkorraren erreserba: **30,88 € /urteko/m.lineala**



Lezoko Unibertsitateko Udala

6.3.- JABARI PRUBLIKOAREN ERABILPEN PRIBATIBOA

1	Oinarrizko prezioa, aprobetxamendu-eguna m2	1,20€
2	Azalera	
	a Mahai bat 4 aulkirekin (*)	4 m2
	b Obrako kontainer bat	10 m2
	c Gainerakoa: aprobetxamenduan okupatuko duena	
3	Denbora: Baimenean agertzen dena eta lanegunez konputatua.	
4	Kalearen faktore zuzentzaile bakarra	1
5	Aprobetxamenduaren faktore zuzentzailea:	
	a Mahai eta aulkiak establezimenduen elementuekin edota guztietako ikuskizunentzat	0,08
	b Kontainerrak, siloak, jasogailuak, aldamioak eta antzekoak jartzea	0,6
	c Besteak	1,8
6	Kioskoak, m2 edo zatiko eta urtero	
	a Aralar kalea	16,00 €
	b Goiko Plaza	9,15 €
7	Karlos Saldise Plazako Merkatua.	
	a Metro Karratu bakoitzeko urteko kuota	66,32 €
	b Metro Karratu bakoitzeko hileko kuota	10,70 €
	(*) Gutxienerako Kuota	72,83



Lezoko Unibertsitateko Udala

6-4 JABARI PRUBLIKOAREN ERABILPEN PRIBATIBOA JAIETAN

Erabilera hauek hiru izaerakoak izango dira:

1. Saltoki postuak
2. Barrakak eta karruselak.
3. Negu garaiko tasa bereziak

1. *Saltoki postuak*

1.1. Oinarrizko prezioa, aprobetxamendu-eguna/metroko

a	Txutxe eta jolas saltokien postuak	11,00€
b	Elikagai elaboratuen salmenta postuak	16,30 €
c	Azokaren salmenta postuak	11,00 €
d	Argazki eta oroigarriak (prezio bakarra egun guztietarako)	203,60 €

Salbuespenak Kulturako departamentuak antolatutako eta hitzartutako hainbat ekitaldi eta programaren barruan, ez dute tasarik ordainduko. Argazkien kasuan, udalak adostu dezake ordainketaren truke argazki kolekzioaren kopia bat.

1.2. Gehienezko azalera

a	Txutxe eta jolas saltokien postuak	10 m ²
b	Elikagai elaboratuen salmenta postuak	12 m ²
c	Azokaren salmenta postuak	10 m ²

1.3. Denbora: Baimenean agertzen dena

1.4. Kokapen lekuak:

- Barrakak. Sagardiandia plaza [gehienez ere 5 postu]
- Txutxe eta jolasen salmenta postuak: Zubitxotik Herri eskolako bidean [gehienez ere, 9 postu]
- Elikagai elaboratuen postuak: Zubitxo kalea eta Euskal Herri plazaren artean [Gehienez ere 3 postu]
- Azokaren salmenta postuak: Gurutze santuaren plazan, Donibane kalean, Kale nagusian, **Piku kalen** eta Saldise Plazan [Gehienez ere 9 postu]

–

2. *Barrakak eta karruselak jartzea*

2.1. Lezo herrian Mendekoste zein Santakruz jaietan barrakak jartzeko oinarriak.

- Lur publikoan ezartzeagatik, instalazio bakoitzak **208,70€** kanona ordaindu beharko dio Udalari. Halere, gunearen garbiketarekin izan ditugun arazoak direla tarte, kanona ordaintzeaz gain 300€ fidantza ordainduko dute
- Muntatze lanak egiteko aurreko egunean sartzea izango dute eta jaiak bukatu ondorengo eguna irteteko.
- Ikuskizunetako eta salmenta-postuetako kartelak elebidunak izango dira, hots, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira. Honetaz gain, egitarauan musika duten ikuskizunek %70a euskaraz eskainiko dute.
- Euskarari buruzko araudia beteko ez balitz, Udalak ahalmena izango du arau-haustea egin duen instalazioa ixteko.
- Alokaturako lursailetan barrakak dauden bitartean, Udalak agintzen du ez duela baimenik emango barraken antzerako ustiapenean diharduten txabolarik ez antzekorik edota tresna mekanikorik Udal barrutian jartzeko.



Lezoko Unibertsitateko Udala

3. Negu garaiko tasa bereziak

Negu garaiko tasa bereziak. Alegia: urria, azaroa, abendua, urtarrila, otsaila, martxo eta apirila (Inauterietan izan ezik).

- Feria etxolak, hilabeteko **173,00€**
- Zaldiko-maldikoak, baby karuselak, e.a., hilabeteko **234,00€**

Salbuespena: Udalak, herritarren interesak direla medio, doako erabilerara erabaki dezake baldin eta karuselen erabileran prezio merkeak hitzartzea lortzen badu.

6-5 UDAL LOKALAK ERABILTZEAREN TASAK

1. Artikulua. *xedapen orokorra*

Toki Ogasunak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43.etik 50.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraiki, prezio publikoak ezarri eta exijituko dira udal lokalak erabiltzeagatik. Hau da: Gezala Auditoriuma, Kultura Aretoa eta Bekoerrotako kiroldegia hainbat kultur ekintzetan.

2. Artikulua. *Aplikazio eremua*

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatzekoa izango da.

3. Artikulua. *Subjektu pasiboa.*

Prezio hau aipatutako udal lokal erabiltzen dituzten pertsonen edo erakundeen ordaindu beharko dute.

4. Artikulua. *Ordaintzeko obligazioa*

Ordaintzeko obligazioa lokalak erabiltzeko unean sortuko da.

5 Artikulua. *Tarifak:*

6-5-1 GEZALA AUDITORIUMA ALOKATZEA

A) Hitzaldi, Mintegi, eta Abarrerako Alokatzea

- Ordu bakoitzeko **109,95€**
- Lau ordu gora erabiltzeagatik eguneko **320,86€**

B) Entsegu Gela Modura Alokatzea

- Ordu bakoitzeko **23,53€**
- Zortzi ordu gora erabiltzeagatik eguneko **109,95€**
- 2 egunetik 7ra erabiltzeagatik eguneko **85,56€**
- 8 egunetik 14ra erabiltzeagatik eguneko **79,15€**
- 15 egunetik 30era erabiltzeagatik eguneko **56,68€**
- 30 egunetik gora erabiltzeagatik eguneko **36,36€**

. *Exentzioak*

- Lezoko irabazi asmorik gabeko kultur, kirol, gazte edo hezkuntza erakundeei Auditoriuma alokatzea, ez dute tasarik ordaindu behar

6-5-2 KULTURA ARETOA ALOKATZEA

A) Hitzaldi, Mintegi, eta Abarrerako Alokatzea

- Ordu bakoitzeko **32,09€**
- Lau ordu gora erabiltzeagatik eguneko **106,95€**

Oharrak:

- 30 erabiltzailetatik beherako ekitaldi guztietako eskarrietan ez da Gezala Auditoriuma alokatuko, Donibane kaleko kultura aretoa baizik.
- Donibane kaleko kultura aretoa partikularrei ez zaie alokatuko. Hau da, Lezoko elkarte edota entitateen erabilerarako da.



Lezoko Unibertsitateko Udala

6-5.3 GEZALA AUDITORIUM ETA BEKOERROTA KIROLDEGIAN ANTOLATUKO DIREN IKUSKIZUNETARAKO SARREREN PREZIOA

- A" Mailako ikuskizunak Bekoerrota kiroldegian	10,00 €
- "B" Mailako ikuskizunak Gezala Auditoriumean (Antzerkia, kontzertuak, eta abar)	5,00 €
- "C" Mailako ikuskizunak Gezala Auditoriumean (Ekoizpenak, haur antzerkia, eta abar)	5,00 €
- "D" Mailako ikuskizunak Gezala Auditoriumean (ikasleentzat bereziki antolatutako jarduerak, edota kultur interes handikoak)	0,00 €
- "E" Mailako ikuskizunak Gezala Auditoriumean (Filmen proiektzioak)	
• Haur Zinea	1,00 €
• Helduen Zinea	2,00 €

6.5.4 EZKONTZETARAKO ETA BESTEAK, UDAL LOKALAK ERABILTZEA

▪ Ez erroldatuak	285,50€/eguna
▪ Erroldatuak (bietako batekin nahikoa da)	0,00€
▪ Fidantza	160,00€

6-5.5 OHOLTZAREN ERABILERA

▪ Fidantza	326,20€
▪ Oholtzaren alokairua (6-x10 +estalkia)	962,50€

SALBUETSIAK : Oarsoaldeako eta Donostialdeako udalak

Kudeaketa arauak:

- Kontzeptu hauetako bakoitza zehazterakoan zailtasunik baldin badago, Lezoko Unibertsitateko Udaleko Alkatea izango da hori zehazteko arduraduna.
- Ikuskizunak ekoizten dituzten erakundeentzako gune lagapena mistoa izan daiteke. Hau da, oinarri hauetan zehaztuta dagoen prezioaren zati bat eskudirutan ordaindu, eta Kultura batzordeari ikuskizuna prezio merkeago batean eskaini; edota udalak gunea dohainik laga, eta horren ordez ikuskizuna dohainik eskaini.
- Kasu hauetan guztietan, jasotako eskaintzaren kultur interesa baloratuko da.
- Era berean, herriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteek horrela eskaturik, Kultura batzordeko erabakia dela medio alokairua ez ordaindu eta diru-sarreraren etekina elkartearen finantza bide bezala erabili dezake.
- Halaber, auditorioa alokatzen bada, kontratatzen duen enpresak ezarriko ditu prezioak, eta sarreraren dirua enpresa horrentzat izango da.
- Gezala aretoaren lagapen kasu guztietan, udalak ongien ikusten duen moduan banatzeko udalaren esku hamar (10) sarrera jarriko dira.



Lezoko Unibertsitateko Udala

6-6 BIDE ETA LEKU PUBLIKOETAN IBILGAILUAK IBILGETU, ERRETIRATU ETA DEPOSITUAN EDUKITZEAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Art. Tasen autolikidazio-erregimena.

Bide publikoan ibilgailuak ibilgetu eta erretiratzeko zerbitzuak emateak sortzen dituen tasak, eta, halaber, haiek Udal Deposituan edukitzeak sortzen dituenak, Ordenantza honetan ekitaldi bakoitzerako finkatzen direnak izango dira.

2. Art. Ibilgetzea altxatu eta ibilgailua bueltatzea.-

Ibilgetzearen altxatzea eta ibilgailua itzultzea titularrari edota pertsona baimenduari soilik egin ahal izango zaio, eta alde zuzenetik dagozkion tasak ordaindurik.

3. Art. Udal depositutik ibilgailuak erretiratzea.-

Bide publikotik ibilgailuak erretiratzearen ondorioz (nahiz ordenantza honetan aurreikusitako arrazoiengatik, nahiz martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretuan edo haren arau-xedapenetan jasotakoengatik, nahiz Aginte Judizialak hala xedatu edo Administrazioak hala eskatu duelako izan), haiek Udal Deposituan gordetik geratzen direnean, depositu-zerbitzu hori emateak tasak sorraraziko ditu, ordenantza honetan ekitaldi bakoitzerako finkatzen den kontzeptuaren arabera.

4. Art. Tasen ordainketa.-

Tasa horiek auto-likidazioaren menpe geratuko dira, zerbitzua ematea amaitzean bertan gauzatzeko, eta horien ordainketa egitera beharturik egongo dira, zerbitzu hori ematea eragin dutelarik, haien subjektu pasibotzat azaltzen direnak Toki Ogasunen Legeak xedatzen duenaren arabera.

BIDE PUBLIKOAN ABANDONATU EDO APARKATUTAKO IBILGAILUAK ERRETIRATU ETA DEPOSITUAN EDUKITZEA

2014		ibilgailua kentzeagatik	ibilgailu/egun depositoan edukitzeagatik	ibilgailu/24 orduz edukitzeagatik	ibilgailua gainontzeko egunak edukitzeagatik
1	Txirrindak	Gruaren jabearen tarifa	1,48	3,13	1,36
2	Ziklomotorrak		3,01	10,99	2,78
3	Motorrak		3,01	22,05	2,78
4	Turismo eta kamionetak 3000kg arte (gordina)		12,00	44,09	10,99
5	Kamioiak 3000kg-7000kg bitartekoak		35,76	165,61	33,10
6	Autobusak eta kamioiak. 7500kgtik gorakoak		35,76	220,82	33,10
7	Utzitako bestelako ibilgailu		12,00	55,20	16,55

Engantxearen tasa **29,90€**

6-7:IGOGAILUEN INSTALAZIOA ETA ANTENAK, ANTZEKO BESTE INSTALAZIOAK ETA ARKITEKTURA-OZTOPOAK EZABATZEN LAGUNTZEN DUTEN BESTE ELEMENTUEN INSTALAZIOENTZAKO APROBETXAMENDUA.

1.- 6 m² baino gutxiago okupatzen den kasuetarako finkoa urtean **104,04€**

2.- 6 m² baino gehiago okupatzen badira **104,04€**+ **15,61€** gehitzen den m² bakoitzeko.

6.8.- UDAL BARATZAK

Baratza bakoitzeko eta urteko

60€

Fidantza:

100€



Lezoko Unibertsitateko Udala

7.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zerga-gaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantentzea barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzzaileak edo kontratistak.

5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua.-

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonen ere erantzungo dute.



Lezoko Unibertsitateko Udala

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua.-

Oinarri ezargarrria zerbitzua gauzaten den unitate bakoitzak eratzten du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua-

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua-

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-1. - URA HORNITZEA ETA HARTUNEAK

Bihabeteko Kuota

ERABILPENAK		ZERGA-KUOTA	€
1	Etxebizitzak	Metro 3	0,42
2	Kiroldegia eta Igerilekuak	Metro 3	0,01
3	Besteak	Metro 3	1,03
4	Etxebizitzetako konexioak		131,00
5	Beste konexioak		306,00
6	Beste koexioak temporalak (Jaiak, obrak etb)		112,00

KUOTA FINKOA			€
	KALIBREA	ETXEAK	BESTEAK
1	DN 15arte	11,24	23,78
2	DN 30arte	11,53	24,11
3	DN 40arte	11,81	24,42
4	DN 65arte	12,97	25,71
5	DN 100arte	13,55	26,37

7-2.- ESTOLDERIA

ZERGA-KUOTA

Estolderi sarera sargunea egiteko lizentzia edo baimena emateari dagokion zerga-kuota behin bakarrik eskatuko da eta kopurua **92,38 €** izango da

Estolderi eta arazketa zerbitzuak ematearengatik eskatu bide den zerga-kuota, ur-horniduraren gaineko Tasatik eratorritako kuotaren %50eko portzentajeren kopurua izango da.

7-3.- ZABOR BILKETA

Zerbitzu Moldeak		Zerga kuota €
1	Etxebizitzak eta Egoitzak	91,29
2	Baseri eta sakabanatuak zerbitzu murriztua	73,03
3	Jatetxeak zerbitzu murriztua	283,00
4	Denda eta Taberna eta elkarte gastronomikoak	182,58
5	Jatetxeak, handizkako salmentak	392,55
6	industria eta lantegiak	392,55



Lezoko Unibertsitateko Udala

SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Landa inguruko etxebizitzetan edota norbera lurretan ezarritako konpostagailuak erabiliz, zabor organikoa konpostatzen duten etxebizitzek zabor bilketa tasaren **%67ko hobaria izango dute.**

Ur-hornidura, zaborra bilketa eta estolderiaren gaineko tasak ordaintzetik salbuetsirik egongo dira:

- Eusko Jaurlaritzaren, Diputazioaren eta udal honen jabegokoak diren eraikinak eta lokalak, zerbitzu publiko ofizialetara xedatutako haren parteari edo osokoari dagokionez. Salbuespen honetan ez dira sartzen eraikin horietan etxebizitzatarako edo beste jarduera batzuetarako erabiltzen diren lokalak.
- Hirigunetik kanpo kokaturik dauden eta zaborra bilketa zerbitzurik ematen ez zaien etxebizitza eta lokalak.

Soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko soldaterakin konparatuz										
PGS	HILABETEROKOA	URTEROKOA		Unitate Familiararen Kideak						
				1-2	3	4	5	6	7	
2013	645,30 €	7.743,60 €	< =	%90	%90	%95	%95	%95	%95	
%10	709,83 €	8.517,96 €	>	%75	%90	%90	%90	%90	%90	
%20	774,36 €	9.292,32 €	>	%50	%75	%90	%90	%90	%90	
%30	838,89 €	10.066,68 €	>	%25	%50	%75	%90	%90	%90	
%40	903,42 €	10.841,04 €	>	%0	%25	%50	%75	%90	%90	
%50	967,95 €	11.615,40 €	>	%0	%0	%25	%50	%75	%90	
%60	1.032,48 €	12.389,76 €	>	%0	%0	%0	%25	%50	%75	

Ezarpen Arauak:

- Kideen zenbatekoa erabakitzerakoan, Lezoko Biztanleen Udal Errondaren azken eguneratzean ageri den informazioa hartuko da kontuan.
- Urteroko urtarrilak 20 baino lehen eta ondoren azaltzen den dokumentazioarekin batera aurkeztuko beharko dira eskaerak udal erregistro bulegoan:
 - Bizikidetasun ziurtagia.
 - Soldata, pentsio, alokairuak edo beste edozein kontzeptugatik nolabaiteko kobrantzarik jasotzen duten famili unitateko kide guztien sarreraren egiaztagiria.
- Lezoko Udaleko ordainketak eginak egotea.
- Nolanahi ere, salbuespena edo hobaria emango balitz, eskatu den ekitaldirako bakarrik dela ulertzen da.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-4.- HERRIKO KANPOSANTUA

Egitate Zergagarria		ZERGA-KUOTA €
1	Gorpu hondakinen lekualdatzea	8,34
2	Hilobiak itxi eta/edo hilarria jartzea	95,03
3	Nitxoak okupatzea	386,04

SALBUESPENAK

Ondorengo kasu hauetan ematen diren zerbitzuak salbuetsirik egongo dira:

- Autonomi Elkarteko Behartsuen Laguntza Egitamu Osokoan barruan aurkitzen ziren zenduen hobiratzeak
- Aginte Judizialak agindu eta hobi komunean egindako lurperatzeak.
- 2 eta 3 egitate zergagarriak alegia, gutxienez beren bizitzako azkeneko hamar urteetan zehar Lezon bizi izanik hiltzen direnentzat eta jaiotze gero bertan bizi izanik, hamar urte bete baino lehen hiltzen diren haurrentzat. Hamar urteen zenbaketarako ez dira kontutan hartuko, herririk kanpo zahar egoitzaren batera bizitzera joan behar izateagatik biztanle eroldan eragindako bajak

7-5.- AUTOTAXI ETA GAINERAKO ALOKAIRU-IBILGAILUREN LIZENTZIAK

EGITATE ZERGAGARRIA

Tasa honen egitate zergagarria gauzatzen dute, Martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuak onartutako Arautegian aipatzen den autotaxi eta gainerako alokairuko ibilgailuen lizentziei dagokienez, ondoren seinalatzen diren zerbitzu-emate eta jarduera-burutzeak:

- Lizentziak baimendu eta ematea.
- Lizentziak besterenganatzeko baimenak, horiek ematea egoki denean, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- Lizentziei dagozkien ibilgailuak aldatzeko baimenak, aldaketa hori nor beraren borondatez nahiz Legez ezarria izan.

ZERGA-KUOTA

Zerga-kuota kopuru finko batean erabakita egongo da, zerbitzu edo jardueraren izaeraren arabera, ondorengo honi jarraiki:

Egitate Zergagarria		Zerga-Kuota €
1	Lizentziak baimendu eta ematea.	1.782
2	Emandako eta indarrean dauden lizentziak besterenganatzea. Plazak berezi gabe	3.314
3	Jadanik emandako lizentzia baten babeseko ibilgailuak ordezkatzeta, plazaren bereizketarik gabe.	122



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-7.- AURRETIKO JAKINARAZPENERA BALDINTZATUTAKO JARDUEREN IKUSKARITZA

EGINTZA ZERGAGARRIA

1) Tasaren Egintza Zergagarria Udal Jarduerak, bai teknikoak baita administratiboak, gauzatzen du, ea aurretiazko jakinarazpenera baldintzatuak dauden jarduerak bete dituen ezarritako ordena, segurtasun eta osasun publikorako neurriak, nahiz neurri zuzentzaileak jarduera lizentzian edota administrazio publikoaren beste edozein dokumentutan ezarriak, alde zuzeneko eta beharrezko baldintza gisa Udal honek irekidura lizentzia eman ahal izateko, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 207 artikulua aipatu bezala.

2) Ondorio horietarako, aurretiazko jakinarazpenera baldintzatuak hartuko dira:

- a) Establezimendua lehen aldiz instalatzea bere jarduerari ekiteko.
- b) Lokalak tokiz aldatzea.
- c) Lokalen titular aldatetak eta esku-aldatetak beraietan garatzen den jarduera aldatu gabe.
- d) Establezimenduan garatzen den jarduera aldatzea edo handitzea, nahiz titular berak jarraitu.
- e) Establezimendua handitzea eta hartan egindako edozein aldakuntza, artikulua honetako 1 zenbakian seinaturiko baldintzetan inolako eraginik baldin bada, haien berriro egiaztatze eskatuz.

1) Aurretiazko jakinarazpenera baldintzaturiko Jarduera klasifikatutzat ulertuko dira Ingurugiroaren Babespeneko 3/1998 Lege Orokorreko II. Eranskinean jasotako jarduera eta instalazio publiko eta pribatuak, B ataletakoak.

ZERGA-KUOTA

a) Aplikatzeko tarifa hauek izango dira:

- Komertzioak **695 €**
- Zerbitzuak: **838 €**
- Industriak: **1.045 €**
- Instalazioak jartzea **838 €**

b) Lokalen eskualdatzeak edo titularitate aldatetak, betiere lehengo jarduera mantentzekotan eta jarduera lizentzia indarrean dagoen legediaren arabera badaukate, lehen aldiz jartzeko kasuan suertatuko zitzaien tarifaren %75 ordainduko dute.

c) Behin-behineko establezimenduak irekitzeko kasuetan:

- Behin-behineko lokalaren erabilpen denbora urtebete baino gehiago eta hiru urte baino gutxiago bada, %20.
- Erabilpen hori urtebete baino gutxiago bada, %10.

d) Eskualdatzen den lokalak indarrean dagoen legediaren xedapenen arabera jarduera lizentziarik ez badauka, lizentzia berria eskatu beharko du eta dagokion tasa ordaindu.

SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Salbuespenak

Tasa honetatik salbuetsirik egongo dira, baina ez behar den lizentzia eskuratzeko obligaziotik:

- a) Eusko Jaurlaritzaren, Diputazioaren eta udalerrri honen jabetzako eraikin eta lokalak, zerbitzu publiko ofizialek xedaturiko eraikin osoari edota haren parteari dagokionez. Salbuespen horretan ez da sartzen establezimendu horietan etxebizitzarako edo beste jarduera batzuetarako erabiltzen den parteak.
- b) Elkarrekin politiko, sindikal eta kulturek edota, oro har, irabazia bilatzeko helburua ez dutenek okupaturiko lokalak.
- c) Behin-behineko larrialdi egoera batek lokaletako obregatik eragindako lekualdatzeak, betiere horiek behar den lizentzia baldin badaukate.
- d) Behartutako eraisketak, hondamendiak eta suteak eragindako lekualdatetak, eta agindu eta xedapen ofizialak betetzeko giten direnak.

Hobariak



Lezoko Unibertsitateko Udala

- 1) Kuoten %80ko hoberia izango dute:
 - a) "Mortis causa" gertaturiko titular aldaketek ezkontide artean eta asaba eta oinordeko artean, betiere hori eragin duenari lizentzia eman zitzaien data ezkerro 30 urte iragan ez bada.
 - b) Sozietate ez-Anonimoen izen sozialaren aldaketa, haietariko sozioen bat hil delako.
- 2) Kuoten %50eko hoberia izango dute, instalazioa toleratua edo baimendua izan arren, instalatzerik ez zegokien tokiren batetik establezimenduak edo lokalak Administrazioak egokitzen emandako beste leku batzuetara tokiz aldatzeek, betiere lokal berrian garatu bide den jardueraren lehengo bera izatekotan.
- 3) Inolaz ere ez dira aplikatuko bi hobari batera, bietarik handiena baizik.

Sortzapena

- 1) Tasa sortzen da eta ordainketa-obligazioa gertatzen da, egintza zergagarria gauzatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean. Ondorio horietarako, jardueraren hasieratik emango da jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkezpen datatik, baldin eta subjektu pasiboak hura espreski formulatzen badu.
- 2) Baldin eta jardueraren jartzea jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu gabe egin bada, Udal jardueraren efektiboki hastean izango da Tasaren sortzapena, hark erabaki beharko baitu ea establezimenduak biltzen dituen ala ez eska daitezkeen baldintzak, betiere, jardueraren ezarpena baimentzeko edota, ezarpen hori baimentzerik ez balego, hura ixtea dekretatzeko bidera daitezkeen espediente administratiboa irekitzearen kalterik gabe.
- 3) Zerga ordaintzeko obligazioa, behin sortuz gero, inolaz ere ez da desagertuko aurkezturiko jardueraren aurretiazko jakinarazpena ukatu izanagatik edota establezimenduaren eitea aldatu beharrezko baldintzapean eman izanagatik, ezta eskatzaileak eskaerari uko egiteagatik edo hura, lizentzia eman ondoren, bertan behera lagatzeagatik ere.

Likidazioa eta ordainketa

Ordenantza honetan markaturiko salbuespenak edo hobariak eskuratzeko interesa dutenek, Udal administrazioan eskatu behar dute, hura lortzeko eskubidea ematen dieten zehaztapenak behar bezala frogatuz.

- 4) "Mortis causa" salbuespena lortzea, ondorengo hauen baldintzapean egongo da:
 - a) Salbuespenaren eragileak jardueraren horretan aritzeko behar den jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztua izatea edota zegokiokeen salbuespena eskatuta izatea.
 - b) Jardueraren beraren jarraipena frogatzea.
 - c) Hori eragin duenaren heriotza ezkerro urtebete iragan baino lehen eskatzea.
 - d) Hori eragin duenari jardueraren aurretiazko jakinarazpena aurkeztu zuenetik 30 urte ez iragan izana.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-8.- LIZENTZIA URBANISTIKOAK

ZERGA-KUOTA

Aplikatzeko tarifak hauek izango dira:

Egintza zergagarria		Zerga-kuota €
1	Aurrekontua < a 30.000 €	53 €
2	Aurrekontua >= a 30.000 €	531 €
3	Lehen-okupazio lizentzia etxebizitza edota lokal bakoitzeko	%5 s/ I.C.O.

SALBUESPENAK

Zerga honen ordainketatik salbuetsirik egongo dira, baina ez behar den lizentzia eskatzeko obligaziotik:

- Herriko jai edo festetan egiten diren aparteko apainketa eta edertze obrak.
- Urteko sarrerak lanbide-arteke gutxieneko soldatari dagozkionak baino urriagoak dituztenak eta/edo Euskadiko Autonomi Erkidegoko Pobreziaren Laguntzarako Egitasmo Orokorrean sartutako daudenak.
- “Enterado de obra” delakoaren bidez tramitatzen diren lizentziak.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-9.- NORBAITEK ESKATURIK EMATEN ZAIZKION DOKUMENTUAK

ZERGA-KUOTAK

Aplikatuko diren tarifa hauek dira:

DOKUMENTU MOTA		€
1	Interesatuak bere aldetik eskaturik emango den zerbitzu ziurtapen bakoitzarengatik	59
2	Terrenoaren izaerari buruz edo eraikuntza ondorioetarako kontsultaz emango den txosten bakoitzarengatik	118
3	Trafiko istripuen txosten bakoitzeko	59
4	Hiritar izaerako lurraldeen balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazio kalkulu bakoitzeko	59
5	Segregazioko administrari baimena eta besteak	59
6	Altamira Auzoan aparkaldi mugaturako baimenak eman eta tramitatzea. Hiru urtero	10
7	Armak edukitzeko lizentzia	20
8	Animali arriskutsuak edukitzeko lizentzia	50,00
9	Interesatuak eskaturik dokumentu urbanistikoak tramitatzea:	€
a	Arau subsidiarioen aldakuntza	3.912
b	Plan Bereziak	2.371
c	Plan Partzialak	2.371
d	Zehazpen Estudioak	1.186
e	Urbanizazio proiektuak	2.371
f	Ihardukira programak	2.371
g	Birsailkatze edo kooperazio proiektuak	2.371
h	Konpentsazio proiektuak	2.371
i	Desjabetze proiektuak	2.371
j	Beste	1.186
10	Fax Zerbitzua:	€
	Fax, E.A.E.n barruan, folio bakoitzeko zuri beltzean	3,56
	Fax, E.A.E.n barruan, folio bakoitzeko koloretan	7,12
11	Folio bakoitzeko fotokopiak:	€
a	DINA 4, zuri beltzean	0,36
b	DINA 3, zuri beltzean	0,65
c	DINA 4, koloretan	0,72
d	DINA 3 koloretan	1,30
12	Besteak	€
a	CD edo DVD	10,70



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-10.-MUSIKA ESKOLA

TARIFAK (2013-2014)

Aplikatuko diren tarifa hauek dira:

Musika Eskola 2013-2014			
GAIK / ASIGNATURAS	TASAK		
	Lezokoak	Kanpokoak	
Tresna + Talde	294,53 €	490,89 €	
Instrumento + Conjunto			
1go Maila	147,27 €	245,44 €	
NIVEL 1			
Osagarria + Talde	147,27 €	245,44 €	
Complementaria + Conjunto			
Tresna + Talde + Osagarri 1	364,97 €	608,27 €	
Instrumento + Conjunto + 1 Complementaria			
2 Tresna + Talde	588,36 €	980,59 €	
2 Instrumentos + Conjunto			
Ikastaroak; ordu 1 (2 ikasle)	12,50 €	12,50 €	
Cursillos; 1 hora (2 alumnos)			
Ikastaroak; ordu 1 (3 ikasle)	8,50 €	8,50 €	
Cursillos; 1 hora (3 alumnos)			
Ikastaroak; ordu 1 (4 ikasle)	6,50 €	6,50 €	
Cursillos: 1 hora (4 alumnos)			
Ikastaroak; ordu 1 (4 ikasletik aurrera)	6,00 €	6,00 €	
Cursillos; 1 hora (A partir de 4 alumnos)			

Osagarriak, Musika Mintzaira eta Hezkuntza Musikala dira

HIRU: A.- HOBARIK, "TOMAS GARBIZU" LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULA TASEN ORDAINKETAN

Eskatzaileek alde aurretik bete beharreko baldintzak:

A-1.- Lezon errolatuta egotea eskatzen den urteko urtarrilaren 1a baino lehen.

A-2.- Udal zerga eta prezio publiko guztiak ordaindurik edukitzea.

B.- MATRIKULA TASEN ORDAINKETAN HOBARIA HONAKO HAUEK IZANGO DUTE:

B-1.- Lezon errolatuta dauden ikasle guztiei, matrikularen tasan, %40ko hobaria dagozkie.

B-2.- Aplikazio arauetako taulan ezartzen diren diru sarrerak gainditzen ez dituzten ikasleek, hobaria jasotzeko eskubidea izango dute (ikus taula).

B-3.- Famili ugariak. Kide bakoitzaren hobari eskubidea: %25.

D.- APLIKAZIO ARAUAK:



Lezoko Unibertsitateko Udala

D-1.- Kideen zenbatekoa erabakitzeko Biztanleen Udal Erroldaren azken eguneratzean jasorik dagoen dokumentazioa hartuko da kontuan.

D-2.- Tasen hobari eskabideak Musika Eskolako Bulegoan aurkeztuko dira matrikula egiterakoan eta dokumentazio hau bateratuko zaie:

- Bizikidetzaren Ziurtagiria
- “Sarrera ekonomikoengatik” eskatuz gero, Errenta Aitorpenaren azken kopia aurkeztu behar da, edota aitorpena egitera behartuta ez egotearen Foru Aldundiaren ziurtagiria
- Errenta Aitorpena aurkezten duenari, oinarri bezala, “GUZTIRA OSAGARRI POSITIBOAK” hartuko zaizkio kontuan.
- Obligaziorik ezaren ziurtagiria aurkeztuz gero, Aitorpen hori ez egiteko Foru Aldundiak gehieneko sarreratzat hartutako baremoak edukiko dira kontuan.

Obligazio eza adierazten duen ziurtagiria (ogasuna) eta 10-T (enpresa) edo etekin gordinen ziurtagiria erantsi. (Errotaburu: Tlf: 902-100040)

- Famili ugarien kasuan, famili ugariaren liburua, eguneratuta.

D-3.- Hobari eskubidea duten pertsonei, matrikula ordaintzerakoan aplikatuko zaie hobaria.

D-4.- 2. eta 3. paragrafoetako hobariak, 1. paragrafoan jasotzen direnekiko metagarriak dira. Hala ere, 2. eta 3. paragrafoetan jasotakoak euren artean ez dute izaera metagarririk. Azken kasu honetan, onuradunak gehien interesatzen zaiona aukeratu ahal izango du.

D-5.- Hobaria ematea gertatzean, hori eskatu den ekitaldirako bakarrik izango da.

D-6.- Tasa-hobarietarikoren baten onura jasotzeko proposatzen diren baldintzak ikasle batek betetzen baditu, baina aurreko ikasturtean klasetara asistentzia %85 baino gutxiagokoa izan badu, beste gabe automatikoki ukatu egingo zaio eskaera.

HILABETEROKOA	URTEROKOA	Unitate Familiararen Kideak						
2013		1-2	3	4	5	6	7	
645,30 €	7.743,60 €	<=	%90	%90	%95	%95	%95	%95
709,83 €	8.517,96 €	>	%75	%90	%90	%90	%90	%90
774,36 €	9.292,32 €	>	%50	%75	%90	%90	%90	%90
838,89 €	10.066,68 €	>	%25	%50	%75	%90	%90	%90
903,42 €	10.841,04 €	>	%0	%25	%50	%75	%90	%90
967,95 €	11.615,40 €	>	%0	%0	%25	%50	%75	%90
1.032,48 €	12.389,76 €	>	%0	%0	%0	%25	%50	%75



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-11.- BEKOERROTA KIROLDEGIA ETA ALTZATE IGERILEKUAK

TARIFAK

Aplikaturako diren tarifa hauek dira:

BEKOERROTA KIROLDEGIA-ALTZATE IGERILEKUAK

Matrikula	
Matrikula	33,31
Hileko kuotak	
Familiakoa	31,36
Banakako heldua (= > 16)	19,50
Banakako gaztea (< 16)	9,30
Jubilatua/langabezia-prestazio onuraduna	9,30
Bikote jubilatua	15,37
Urteko bonoak**	
Familiakoa	313,64
Banakako heldua (= > 16)	139,36
Banakako gaztea (< 16)	85,28
Jubilatua/langabezia-prestazio onuraduna	85,28
Bikote jubilatua	139,36
Hileko Bonoak	
Familiakoa	78,84
Banakako heldua (= > 16)	46,28
Banakako gaztea (< 16)	28,76
Jubilatua/langabezia-prestazio onuraduna	28,76
Bikote Jubilatua	45,45
Norberarentzako Bonoak (15 erabilpen)	
Banakako heldua (=> 16)	54,21
Banakako Gaztea (< 16)	28,88
Jubilatua/langabezia-prestazio onuraduna	28,88
Sarrerak	
Banakako heldua (= > 16)	5,54
Banakako gaztea (< 16)	2,98
Jubilatua/langabezia-prestazio onuraduna	2,98
*Taldeak (gutxienez 8)	37,40
20 pertsona baino gehio, sarrera bakoitzeko %50	
Alokairuak	
Igerilekua; kalea orduko	17,52
Pista osoa Ordua	32,77
Pista 1/3 orduko	11,12
Frontoia orduko	11,12
Minifrontoia	5,08
Askotarako gela orduko	17,52



Lezoko Unibertsitateko Udala

Txapelketa-kirol erakunde Alokairuak	
Igerilekua: txapelketak;= jardunaldi 1/2	218,35
Igerilekua egun osoa	349,42
Asteburuko igerilekua	523,93
Igerilekua; kalea orduko	22,93
Rokodromoa saioa (2 ordu)	52,93
Rokodromoa: egun erdia	91,86
Rokodromoa: egun osoa	152,89
Rokodromoa: asteburua	236,28
Frontoia orduko	52,93
Frontoia egun erdia	91,86
Frontoia egun osoa	152,89
Frontoia Asteburua	236,28
Pista Txapelketak (2 Ordu +-)	52,93
Pista osoa: egun erdia	91,86
Pista osoa; egun osoa	157,44
Pista osoa: Asteburua	236,28
Erabilera anitzeko gela orduko	22,93
IKASTAROAK	
helduak hilabetero (Jubilatuak %50) Bekoerrota eta Alzate	
ordutegi irekia - 40 minutu (Bekoerrota eta Alzateko ikastaroak)	19,42
Alzate Igerilekuak	
Igerilekua gazteak-haurrak Hiruhilabetekoa (<16)	
(Igeriketa)	
Egun 1 astean	10,21
2 egun astean	15,45
Haur txikiak: egun 1 astean	16,36
Haur txikiak: 2 egun astean	30,74
Bekoerrota Kiroldegia	
Osteopatia	
<i>Bazkideak</i>	
Helduak	
Ordubeteko saioa	27,85
Bonoa (5 saio)	126,78
Gazte/jubilatuak	
Ordubeteko saioa	18,26
Bonoa (5 saio)	82,56
<i>Ez bazkideak</i>	
Ordubeteko saioa	31,78
Kopuru hauei bidezko zeharkako zergak aplikatuko zaizkie, hala badagokie.	



Lezoko Unibertsitateko Udala

SALBUESPENAK ETA HOBARIAK (2014. urtea)

Eskatzaileek alde zuzenetik bete beharreko baldintzak hauek dira:

1. Eskatzen den urteko urtarrilaren 1.a baino lehen Lezon erroldaturik egotea.
2. Kirol klub, sail eta elkarten kasuan egoitza soziala eta bere jarduerara Lezon garatu beharko dira, eremu bereziak behar dituzten taldeen kasuetan ezik. Lezon garatzen ez diren kirol modalitateen kasuan, entitateak modalitate hau garatzea eta eskualdeko izaera edukitzea (hau estatutu edo legezko agirian jaso beharko da).
3. Udal zerga guztiak ordainduta edukitzea.

ONURADUNAK

1. Sarrera ekonomikoen arabera: Taula ikusi.
2. Famili ugariak. Kide bakoitzaren hobari eskubidea: %25.
3. Jubilatua eta langabezia-prestazio onuradunak. Instalazioak eta zerbitzuak 15:00ak baino lehen erabiltzen badituzte bazkide mota horretarako finkaturiko tasa bereziak aplikatuko zaizkie.
4. Bazkide orok, alokatze esparruak 48 ordu baino epe txikiagoan alokatzen badituzte ez dute alokairu tasa ordaindu beharko. Kasu honetan baldintzetako 1 eta 3 atalak ez dira zertan bete behar.
5. Alta berrien kasuan baldintzetan jasotako 1.go atala betetzen dituztenei matrikulan %30ko hobaria aplikatuko zaie.
6. 2000. urteko urriaren 17an Udalak osoko bilkuran onartutako pleguetan jasotzen ziren salbuespen eta hobari guztiak. Hauen artean aipa ditzakegu:

Eskola Kirola

Eskola Kiroleko programaren barnean antolatutako ekintza guztiak instalazioen ordainketa salbuetsia dute baita sarreren ordainketa bertan parte hartzen duten eskolaumeek. Arau hau Lezo, Oarsoaldea eta honela hitzartua duen beste edozein udaletako jarduerara eta eskolaumeei aplikagarria izango da.

Lezoko Udala.

Lezoko udalak ez du inongo tasarik ordaindu beharko berak antolatu edo bultzatutako edozein ekintzatarako.

Egoitza soziala Lezon duten Kirol klubak.

Ez dute alokairurik ordainduko saio eta partidu/txapelketa ofizialen kasuan.

Eskualde mailako Kirol klubak.

Lezon lantzen ez diren kirol modalitateak jasotzen dituzten eskualde mailan lan egiten duten kirol klubak, teknikariaren baiezko txostena jaso ezker, ez dute alokairurik ordainduko saio eta partidu ofizialen kasuan. Talde hauetako kirolariak saio edo txapelketa uneetan instalazioetan sartzeko ez dira bazkide izan beharko baldin eta eskualdetik kanpo erroldatuak badaude edo eskualdean erroldaturik egonda eskualdeko instalazio batetako bazkide badira. Kasu hauetan instalazioetan sartzeko kirol klubaren txartela aurkeztu beharko dute.

Erabiltzaile jubilatua eta langabetua.

Erabiltzaile mota honek bere bazkide txartel espezifikoa badu, instalazioak 15:00ak baino lehen erabili ahal izango ditu astelehenetik ostiralera eta aste bukaeran ordutegi osoan. Langabetuek bere egoeraren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

7. Kirol instalazioetako bazkide berrien kasuan alta eguna kontuan hartuko da eta lehenengo hilabeteko kuotaren zati proportzionala kobratuko zaie.
8. Lezoko elkarten bitartez kirol instalazioetako kirol jardueretan parte hartzen duten erabiltzaileak eta Bekoerota-Altzaten bere jarduerara garatzen duten kirol klubetako partaideak bazkide ez badira, ikasturterako bazkide txartel egiterik izango dute (alta jarduerara hasieran eta baja bukaeran) eta ez dute matrikularik ordaindu beharko. Hobari hau elkarte hauen kirol jardueretan parte hartzen duten erabiltzaileei eta aipatutako kirol klubetako partaideei aplikatuko zaie bakarrik (banakako bonoa). Bazkide txartel berezi hauek elkarteek tramitatu beharko dituzte.



Lezoko Unibertsitateko Udala

APLIKAZIO ARAUAK

1. Elkarbizitza unitateko zenbatekoa erabakitzerakoan, (onuradunen 1 eta 2 ataletan) Lezoko Biztanleen Udal Erroldaren azken eguneratzean ageri den informazioa hartuko da aintzat.
2. Sarrera ekonomikoengatiko hobarien kasuan ondoren azaltzen den taulan zehazten dira egin beharrekoak
3. Famili ugari eta kirol elkarteen kasuetan hobari **eskabideak Kirolddegiko bulegoan aurkeztuko dira** matrikula egiterakoan eta ondorengo **dokumentazio hau erantsiko zaio**:
 - Pertsona fisikoen kasuan udal zerga guztiak ordainduta edukitzearen ziurtagiria (urtero aurkeztu beharko da urtarrilaren 20a baino lehen).
 - Famili ugarien kasuan famili liburua eguneratua.
 - Kirol elkarteen kasuan kirol sailak luzatutako agiria.
4. Hobaria, eskaera onartutakoan aplikatuko da.
5. Hobariak metatze-izaerarik ez dutenez, onuradunak gehien interesatzen zaiona aukeratu ahal izango du.
6. Hobaridunak bere egoeran (hobariarekin zerikusia duena) ematen den edozein aldaketaren berri emateko konpromisoa hartzen du bere gain



Lezoko Unibertsitateko Udala

.Sarrera ekonomikoengatiko hobariari dagokion taula.

Soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko soldatarekin konparatuz										
PGS	HILABETEROKOA	URTEROKOA		Unitate Familiaren Kideak						
				1-2	3	4	5	6	7	
2013	645,30 €	7.743,60 €	<=	%90	%90	%95	%95	%95	%95	
%10	709,83 €	8.517,96 €	>	%75	%90	%90	%90	%90	%90	
%20	774,36 €	9.292,32 €	>	%50	%75	%90	%90	%90	%90	
%30	838,89 €	10.066,68 €	>	%25	%50	%75	%90	%90	%90	
%40	903,42 €	10.841,04 €	>	%0	%25	%50	%75	%90	%90	
%50	967,95 €	11.615,40 €	>	%0	%0	%25	%50	%75	%90	
%60	1.032,48 €	12.389,76 €	>	%0	%0	%0	%25	%50	%75	

Ezarpen Arauak:

- a) Kideen zenbatekoa erabakitzerakoan, Lezoko Biztanleen Udal Errondaren azken eguneratzean ageri den informazioa hartuko da kontuan.
- b) Urteroko urtarrilak 20 baino lehen eta ondoren azaltzen den dokumentazioarekin batera aurkeztuko beharko dira eskaerak udal erregistro bulegoan:
 - b).1.: Bizikidetasun ziurtagiria.
 - b).2.: Soldata, pentsio, alokairuak edo beste edozein kontzeptugatik nolabaiteko kobrantzarik jasotzen duten famili unitateko kide guztien sarreraren egiaztagiria.
- c) Lezoko Udaleko ordainketak eginak egotea.
- d) Nolanahi ere, salbuespena edo hobaria emango balitz, eskatu den ekitaldirako bakarrik dela ulertzen da.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-12.- PLAZETA FUTBOL ZELAIA

TARIFAK

Aplikatu diren tarifa hauek dira

AZALPENA	TASA
Alokairuak	2013
Zelai osoa orduko (saioa)	97 €
Zelai osoa orduko (partidua)	113 €
Zelai osoa txapelketa federatua (partidua)	129 €
Txapelketa erregional maila eta gorakoak (partidua)	145 €
Zelai osoa txapelketa goiza	289 €
Zelai osoa txapelketa arratsaldea	306 €
Zelai osoa txapelketa egun osoa	483 €
Futbol 7ko zelaia orduko (saioa, talde 1)	60 €
Futbol 7ko zelaia (partidua, 2 talde)	68 €
Futbol 7ko zelaia (partidua, 2 talde; Bekoerr. 4 Bazkide)	60 €

SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

Allerru Futbol Taldea.

Zelaiaren mantentzea eta kontrolaren ardura duenez Allerru futbol taldeak ez ditu finkaturiko tasak ordaindu beharko, ez bere taldeen erabilpenak ematen direnean, ez eta taldeko langile edo laguntzaileen arteko partiduak antolatzen direnean ere.

Lezoko Udala

Lezoko udalak ez du inongo tasarik ordaindu beharko berak antolatu edo bultzatutako edozein ekintzetarako.

Eskola Kirola

Eskola kiroleko programaren barnean antolatutako ekintzetarako ez da tasarik ordaindu beharko. Salbuespen hau Lezo, Oarsoaldea eta Lezok hitzartuko lukeen beste edozein udaleko eskolaumei luzatuko zaio.

Iraupen ertaina eta iraupen luzeko alokairuak.

Erabilpen ordu kopuruaren arabera %10etik %50era doazen hobariak aplikatu dira. Kasua kasuko hobari hauek tokiko gobernu batzordeak onartu beharko ditu.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-13 UDALEKUAK

ORDAINKETEN BANAKETA:

		Familia ugariek
1. Matrikula	80	64
2. Hartzaindegi Zerbitzua	533	42

- Ezinbesteko baldintza: Herriz aldatu berri dien familiak eta etorkinen familiak salbu, matrikulazioaren urtean haurrak Lezon erroldatuta egon behar dute. Halere, kasu guztietan haur hauek Lezoko ikastetxetan matrikulatuak behar dute.
- Adin tartea: 3 eta 10urte bitartean
- Plazak: gehienez ere **175** plaza izango dira. Aipatu kopuru hau gaindituz gero, plaza hauek inskribatzen direnen artean banatuko dira
- Hartzaindegi zerbitzua: Bai, baldin eta gutxieneko taldea osatzean bada [10 haur]
- Salbuespenak: Larrialditako laguntza jasotzen duten familietako hurrek ez dute matrikula ordaindu beharrik. Kasu hauetan aldian aldiko Ongizate Zerbitzuak zehaztuko ditu
- Famili Ugariak %20

7-14 LUDOTEKA ZERBITZUA

Urteroko Matrilara **50,00**

-
- Adin tartea: **3** eta 10urte bitartean
- Ezinbesteko baldintza: Etorkinen familiak salbu —eta haur hauek Lezoko ikastetxetan matrikulatuak behar dute— matrikulazioaren urtean haurrak Lezon erroldatuta egon behar dute.

Salbuespenak:

- Larrialditako laguntza jasotzen duten familietako hurrek ez dute matrikula ordaindu beharrik. Kasu hauetan aldian aldiko Ongizate Zerbitzuak zehaztuko ditu
- Beherapena: Familia ugariko kideek %20ko beherapena izango dute.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-15.- KULTURA SAILAK ARGITARATUTAKO MATERIALA SALTZEKO TARIFAK

AZALPENA	TASA 2013
Salmenta	
Liburuak	
Lezoko Historia Urratsez Urrats Saila	
- Askatasunaren zuhaitza: Lezo historia garaikidean	3,00 €
- Lezoko baserriak lehen eta orain	3,00 €
- Lezoko demografia eta industria XX	3,00 €
- Lezoko herri mugimendua XX. mendean	3,00 €
- Lezo: ondarea eta hiri garapena	10,30 €
Ezagutu Lezo	
- Lezoko baserriak	4,00 €
- Lezo Airetik (argazki liburua)	10,00 €
- Lezoko ibilbide pedagogikoak	10,00 €
- Ezagutu Lezo (Tribial joko DVDn)	3,00 €
Pertsonaiak eta herrigintza	
- Elias Salaberria Memoriala. Euskal Herriko artearen historian barne dagoen istorioa	10,00 €
- Lezo Dantzari [Murixka eta aurrekoak]	3,00 €
- Polentzi Gezala	10,00 €
Hizkuntza	
- Lezoko euskararen azterketa	3,00 €
- Lezoko euskararen historia soziala	3,00 €
Politika	
- Lezo, 50 urtean errepresioa	10,00 €
- Zigortuak. Ilunpetik argitara	3,00 €
Ipuinak eta Komikiak	
- Trapujale (Ipuina)	10,00 €
- Kixkurkeriak	3,00 €
Bestelakoak	
- Jaizkibelazpi	3,00 €
Ikus-entzunezkoak	
- Inauteriak 2008 [DVD]	3,00 €
- Inauteriak 2002 [Bideoa]	3,00 €
- Lezo 800 [Bideoa]	3,00 €
- Lezo 800 [DVD]	3,00 €
- 1512 Nafarroaren konkista – 1512 La conquista de Navarra	3,00 €

Kudeaketa arauak:

Liburu eta disko banatzaileei, materiala zabaltzeko interesa agertuko balute kitapenean %30 deskontua aplikatuko zaie.



Lezoko Unibertsitateko Udala

7-16.- UDAL ZERBITZUETAKO LANGILEEN LAN ORDUAREN TASA

Ordua	2013
Udal Brigadaren Burua	42,81 €
Udal Brigadaren Ofiziala	37,45 €
Udal Brigadaren Peoia	26,74 €

7-17 APARTAMENTU BABESTUAK

KUOTA:

- Diru-sarrerren %20: hilean 747,99€ edo gutxiagoko diru sarrerak dituztenak:
- Diru-sarrerren % 30: hilean 748-1009,99€
- Diru-sarrerren %35: hilean 1.010€ edo gehiago

Diru sarreratzat hartuko dira, honako hauek gehitzearen ondorio direnak:

- Urteko diru sarrera korrante garbiak
- Higigarrien kapitaleko urteko etekin garbia
- Higiezinen kapitaleko urteko etekin garbia

Egoiliarak ohiko etxebizitza alokatu behar baldin badu, diru sarrera korrante garbiak nahikoak ez dituelako apartamentu babestuetarako alokairua ordaintzeko eta eguneroko gastuei aurre egiteko, diru sarrera hori ez da kontuan izango, diru sarrera bezala, betiere, gizarte langileak txosten bat egin beharko du egoera hori azalduz eta ziurtatuz.

Apartamentuan biziko diren pertsona guztien diru-sarrerak kontuan izango dira